

«GURE KABUZ ALA HIL»

Alternatiba sozioekonomikoen inguruko dokumentala; gaiaz eztabaidatzeko tresna

GAZTEAK / Aimar Etxeberria Korta

Sei gazte prekarioren ekinbidearen emaitza da «Gure kabuz ala hil» dokumentala. Euskal Herrian zehar garatzen ari diren alternatiba sozioekonomikoak biltzen ditu, baina lagin txiki bat baino ez da. Gazte mugimenduaren esku uzten duten tresna izateko jaio da; ez du erantzunik ematen, eztabaida sustatu baizik. Datorren ostiralean aurkeztuko dute.

Testuinguru sozio-politikoaren etengabe-ko aldaketaren sinonimo da; gazte mugimendua, berriz, behartuta dago unean-unean bere burua berresmatzera, sortzen doazen testuinguru berriei ahalik eta erantzun zuzenena emateko. Egoera ekonomikoa da egun gazteen buruhauste nagusi-entako bat; etorkizuna marrazten hasteko oztopoak, duintasunez bizitzeko zailtasunak, prekaritatearen biktimak. Hain zuzen, prekaritatearen atzaparretan harrapatuta dagoen gazte talde baten ekinbidearen emaitza da “Gure kabuz ala hil” dokumentala, datorren ostiralean –hilak 27– aurkeztuko dutena.

Topatu.eus gazte proiektu komunikatiboaren eta Ernai gazte antolakundearen babespean garatutako proiektua da dokumentala. Gazte mugimenduak arlo sozioekonomikoaren baitan garatu behar duen eztabaida bultzatuko duen tresna bezala jaio da; ez du erantzunik eman- go, ez du alternatibarik proposa- tuko, gogoeta bultzatzeko boka- zioa dauka soilik.

Iragan maiatzean heldu zio- ten proiektuari adarretatik lana- ren sustatzaileak diren sei gaz- teek. Honela definitzen dute euren burua: «Sei gazte preka- rio gara, jakin-minez eta gogoz heldu diogunak proiektu berri honi». Eurak dira Onintza Rojas, Xalba Ramirez, Itsaso Zubiria, Iraitz Salegi, Eneritz Arzallus eta Lander Arretxea. Zubiria, Salegi eta Arzallusekin bildu da GAUR8, proiektuaren nondik

norakoetan sakondu asmoz. Au- rrez aipatu bezala, maiatzean ja- rri zuten dokumentalaren lehe- nengo harria. Ideia bat zen mahai gainean zeukaten gauza bakarra, gainerako guztia egite- ke zuten: «Dokumentala alter- natiba sozioekonomikoen ingu- rukoa izango zela ere adostua geneukan, baina gidoiaren alde- tik ez zegoen ezer hitz eginda», dio Arzallusek.

Oinarri horren baitan hasi zi- ren arlo eta proiektu alternatibo ezberdinak batzearen ideia ga- ratzen, hots, arlo ezberdinetan lanean zebilen jendearekin ha- rremanak izaten. «Zerrenda bat egitetik hasi ginen, gertuen ga- ratzen zitzaizkigun proiektuak zerrendatuz», azaldu du Zubi- riak. Ahalegindu ziren generoen arteko oreka mantentzen hauta- tutako proiektuen artean, baina autokritika bat egin beharrean dira. «Ez dugu lortu dokumenta- laren denboratan bi sexuak ber- dintzea. Nahiko adierazgarria iruditzen zaigu, benetan ahale- gin bat egin dugulako», onartu du Salegik. Generoa ez ezik, he- rrialdeen arteko oreka ere ga- rrantzitsua iruditzen zaie. Zentzu horretan, diote Araba nahiko hankamotz geratu zaiela.

ALTERNATIBEN LAGIN TXIKI BAT

Argi esan behar da: dokumenta- lak Euskal Herrian zehar dau- den alternatiba sozioekonomi- koen lagin txiki bat besterik ez du jasotzen, lanaren egileen ara- bera. Hala, hogeiren bat proiektu ezberdin barnebiltzen di- tu –32 pertsona agertzen dira dokumentalean, baina kasu ba- tzuetan proiektu bakoitzeko



Dokumentalak Euskal Herrian zeharreko alternatiba sozioekonomikoak biltzen ditu, «baina dagoenaren lagin txiki bat baino ez da», egileen arabera. TOPATU.EUS

badela pertsonaia bat ere doku- mentalean egiten den ibilbide guztiari lotura ematen diona. Lana alternatiben bila dabilen istorio bat ere izan daitekeela adierazi du Salegik: «Euskal He- rria zeharkatu dugu alternatiba sozioekonomikoen bila».

Dokumentalaren baitan egini- ko elkarriketetatik atera duten ondorio nagusia da ez dagoela alternatiba bat eta bakarrik. «Al- ternatibek komunean duten ele- mentu bakarra guztiak autoges- tioan oinarritutakoak direla da, hau da, ‘gure kabuz’ eginak di- rela», azpimarratu du Arzallu- sek. Zubiriak, berriz, gaineratu du izan daitezkeela oso bide ez- berdinetatik doazen alternati- bak, baina, finean, norabide be- rean doazenak: «Bakoitzak bere bidea egin behar du; alternati- bak aurrez aurre jarri beharre- an, egitasmoek elkar nola elika- tzen duten begiratu behar da». Zentzu horretan, onartu du Sa- legik izan dituztela dokumenta- laren garapenean zehar barne gatazka batzuk ere: «Espero ez genituen gauzeekin topatu gara,

pertsona bat baino gehiagok hitz egiten du–, eta bakoitzak bere “harrikada” botatzen du dokumentalean. «Proiektu bat bestearen atzetik ikusiko dugu, baina badute elkarrekiko lotura: izan daitezke elikadura buruja- betzaren inguruko hiru proiektu alternatibo jarraian, ondoren beste bi kooperatiben inguruko- ak, ondoren zaintza eta hezkun- tzaren ingurukoak...», azaldu du Salegik. Gaineratu du Zubiriak



eta une batzuetan iruditu zaigu kontrajarriak ziren bi proiektu aurkitu izan ditugula. Une horietan kosta egin zaigu zeri heldu jakitea».

«GURE KABUZ» EGITEA, ETORKIZUNA

Dokumentalaren garapenean buruhauste handiena, ordea, ez die eman gidoia egiteak, edo ehunka kilometro egin behar izateak elkarriketak egiteko, edo ondorengo produkzio lan guztiak. Buruhauste handiena lanaren izenburuak berak eragin dizkie: «Gure kabuz ala hil». «Agian 'ala hil' hori oso bortitza egiten zaio jende bati. Baina esan behar da, neurri batean, gure kabuz egiten ez badugu hiltzera goazela, bai herri bezala, bai genero aldetik, bai kulturalki, bai politikoki, bai sozialki... Izenburuak herri bat hartzen du bere osotasunean, bere baitan dituen aldagai guztiekin», adierazi du Zubiriak.

Hasieratik nahi omen zuten jendea epel utziko ez zuen izenburu bat. Hala, ingurukoei iritzia eskatzeari ekin zioten.

«Ohartu gara jendeari iritzia galdetu izan diogunean eztabaidan hasteko joko handia ematen duela; aldeko zein aurkako, baina behintzat gaiaz hitz egiten hasten dira», dio Zubiriak. Horrek eman zien azken bultzada. «Gure kabuz» izatearena, berriz, proiektu guztiak batzen dituen ideia delako da: «Hain proiektu ezberdinak bilduta komunean ikusten genien bakarra 'gure kabuz' eginak zirela zen, alegia, proiektu autogestionatuak zirela».

Datorren ostiralean, hilaren 27an, egingo dute dokumentalaren «aurkezpen unibertsala», aurkezpen ekitaldirako prestatu duten gonbidapen txartelak dioen bezala. Aurkezpena Kortxoenean egin asmo zuten, baina azken asteotako gertakariak direla-eta Donostiako Guardetxean egingo dute, 19.00etan hasita. Dokumentalaren proiektzioa eman ostean eztabaidarako tarte irekiko dute, ondoren mokadutxo jateko aukera egongo da eta Liher taldearen eta Basanabasa Djaren kontzer-

tuekin amaituko da «aurkezpen unibertsala».

Baina garrantzitsuena ondoren hasten da, herriz herri antolatuko dituzten emanaldi eta eztabaida saioekin. «Hasieratik helburu bezala jendearen aktibazioa izan dugu. Aisialdi autogestionatuaz gain alternatiba sozioekonomikoak ere badaudela erakutsi nahi izan dugu, eta egingarriak direla. Dokumentala bere horretan ikusteak ez dauka trasfondo handirik, ondoren lantzen den horrek ematen dio balioa», aldarrikatu du Arzallusek. Zubiriak gaineratu

Dokumentala sustatu eta egikaritu duen lantaldea.
Ezkerretik eskuinera: Onintza Rojas, Lander Arretxea, Itsaso Zubiria, Iraitz Salegi, Eneritz Arzallus eta Xalba Ramirez.
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

«Dokumentalak ez du erantzunik ematen, ez du alternatibarik proposatzen, gogoeta sustatzeko bokazioarekin jaio da; gazte mugimenduaren esku uzten dugun tresna bat da»

«Lanaren garapenaren baitan egindako elkarriketatetik bi ondorio nagusi ateratu ditugu: ez dago alternatiba bat eta bakarrik eta guztiak autogestioan daude oinarrituta»

du dokumentalak, gazte ikuspegi duen arren, edozeini eragin diezaiokeen lan bat dela: «Lortu dezakeena da jendeari beldurrrak kendu eta alternatibak garatzen hastera animatzea». Salegik, berriz, lantaldearentzako garrantzitsua den aldagai baten inguruko gogoeta egin du, koherentziarena: «Koherentziaren aldagaia kendu nahi dugu eztabaidatik. Norberak egiten dituen hautuak koherentziaren ordeztu proiektu politiko batean sinesten duelako eginak izatea nahi dugu. Erakutsi nahi dugu koherentziaren izenpean joan gabe bestelako herri eredu bat eraiki dezakegula. Horretarako, erreka guztiei euren bidea egiten utzi behar zaie, itsaso berean itsasoratzen badira behintzat».

Gauzak horrela, abendu erditik urtarilla amaiera arte herriz herri ibiliko dira dokumentala aurkeztu eta eztabaida saioak sustatzen. «Hortik aurrera, gazte mugimenduaren esku uzten dugun tresna izango da dokumentala», diote sustatzaileek.